






## EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREN ERAGINA DATUEN AURRERAPENA (EAE, 2022)

Dokumentu honetan, Azterlan eta Analisisen Dibisioak eta Ertzaintzak (Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila) emakumeen aurkako indarkeriari buruz emandako datu nagusien aurrerapena jasotzen da. Datu horietan, EAEko poliziak 2022an ofizialki erregistratu zituen emakumeen kopurua eta emakumeen aurkako indarkeria-kasuak adierazten dira.

Datu horien arabera, 2022an **4.870 emakume izan ziren indarkeriaren biktima, 2010etik erregistratutako kasu kopuru handiena**. Guztira, 3.407 emakumek (%70,0) bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eraso jasan zuten; 952 emakume (%19,5) euren familiako beste gizon batek eragindako indarkeriaren biktima izan ziren, eta 511ek (%10,5) familiatik kanpoko sexu-indarkeria jasan dute.

Kontuan izan behar da emakume batzuek behin baino gehiagotan jasaten dituztela erasoak urte berean. Zehazki, **2022an 6.143 indarkeria-kasu zenbatu ziren**.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK ETA BIKTIMIZAZIOAK, INDARKERIA MOTAREN ARABERA.  
Absolutuak eta %. EAE, 2022

	2022	6.143 indarkeria- kasuak	4.870 emakume
 Bikotekide edo bikotekide ohiaren indarkeria		4.507 kasu %73,4	3.407 emakume % 70,0
 Familia barruko indarkeria		1.116 kasu %18,2	952 emakume %19,5
 Sexu-indarkeria		520 kasu %8,5	511 emakume %10,5

Nabarmendu behar da, **2021eko datuekin alderatuta, gora egin duela bai indarkeriaren biktima diren emakumeen kopuruak, bai biktimizazioen kopuruak**. Zehazki, biktima diren emakumeen kopurua **%12,8 hazi da**: 2021an 4.317 ziren, eta urtebete geroago, 4.870. Biktimizazioei dagokienez, igoera % 13,1koa izan da, 2021an 5.430 izatetik 2022an 6.143 izatera igaro baita.






Indarkeria-datuen gorakada orokor horren arrazoi nagusia, bereziki, aldi horretan **bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eta sexu-askatasunaren eremuko indarkeria-kasuen hazkunde nabarmenaren** ondorioz azaltzen da, bai emakume biktimen kopuruan (%16,2 eta %14,8) bai biktimizazioen kopuruan (%16,4 eta %15,3). Familia barruan eragindako indarkeria-kasuek ere gora egin dute apur bat.

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK ETA BIKTIMIZAZIOAK, INDARKERIA MOTAREN ARABERA. % EAE, 2021 eta 2022**

	INDARKERIA-KASUAK			EMAKUME BIKTIMAK		
	2021	2022	Aldakuntza	2021	2022	Aldakuntza
Bikotea/Bikote ohia	3.873	4.507	16,4	2.932	3.407	16,2
Familia barrukoa	1.106	1.116	0,9	940	952	1,3
Sexu-indarkeria	451	520	15,3	445	511	14,8
<b>Guztira</b>	<b>5.430</b>	<b>6.143</b>	<b>13,1</b>	<b>4.317</b>	<b>4.870</b>	<b>12,8</b>

Biktimizazioen datuak hilabetez hilabete aztertuz gero, ekainean, uztaila eta urrian indarkeria-kasuek gora egin dutela ikus daiteke.

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERI KASUAK, INDARKERIA MOTAREN ARABERA, HILABETEZ HILABETE. Absolutuak. EAE, 2022**




Lurraldeka aztertuta, datuek adierazten dute **biktima diren emakumeen %51,8 (2.524) Bizkaian bizi da, %32,2 (1.569) Gipuzkoan, eta %16 (777) Araban**. 2021. urtearekin alderatuta, hiru lurralde historikoetan biktima izan diren emakumeen kopuruak gora egin du, baina, batez ere, Arabak (%19,7) eta Gipuzkoak (%15,3) izan dute hazkunderik handiena, baita Bizkaian %9,4ko gorakada egon da.





**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA.**  
**Absolutuak eta %. EAE, 2022**



Emakumeen adinari erreparatuta, **biktimen ia erdiak (%45,7) 31 eta 50 urte bitartekoak dira eta %27,7 18 eta 30 urte bitartekoak.** Gainera, **biktima guztien %10,6 adingabeak dira, eta %15,9 urtetik gorako emakumeak.**

Datuek berriro erakusten dute nolabaiteko **lotura dagoela emakumeen adinaren eta jasaten duten indarkeria motaren artean.** Hala, bikotekideen edo bikotekide ohien biktima diren emakumeen %55,8k, 31 eta 50 urte artean ditu, eta %86,3k, 18 eta 50 urte artean. Bestalde, ohikoagoa da familia barruko indarkeria jasaten duten emakumeak 50 urtetik gorakoak (%37,9) edo adingabeak (%25,1) izatea.

Bestalde, **emakume gazteenak dira familiatik kanpo eragindako sexu-indarkeriaren biktima nagusiak:** indarkeria mota horren biktimen %39,7 adingabeak dira, eta %76,1 30 urtetik beherako emakumeak .

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK, ADINAREN ARABERA. EMAITZA OROKORRAK ETA ERASOTZAILE MOTAREN ARABERA. %. EAE, 2022**

	Guztira	Bikote/Bikote ohia	Familia barrukoa	Sexu-askatasuna
18 urtetik beherakoa	10,6	2,2	25,1	39,7
18-30 urte bitartekoa	27,7	30,6	13,0	36,4
31-50 urte bitartekoa	45,7	55,8	23,9	19,0
50 urtetik gorakoa	15,9	11,4	37,9	4,7
Adin ezezaguna	0,1	0,1	0,0	0,2
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

